

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 941200 ERAKUNDEEN ARTEKO
KONPROMISOAK. EAE

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 941200 COMPROMISOS
INSTITUCIONALES. CAPV

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Urriaren 7ko 4/2021 Legeak onesten du baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologia. Lege horretan, autonomia erkidego osoko erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera, ezarrita dago erakunde erkideen eta foru aldundien artean banatu beharreko baliabideak foru aldundiek ekonomia itunaren kudeaketaren ondorioz dituzten diru sarrerak izango direla, Estatuarentzako kupoa (2022-2026 bosturtekorako Euskadiren kupoa zehazteko apirilaren 3ko 10/2023 Legearen bidez onetsitako metodologiaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen diren konpentsazio finantzarioekin batera) kendu ondoren, bai eta, hala dagokionean, Eusko Jaurlaritzak 27/1983 Legearen 22. artikuluko hirugarren apartatuko EAeko ekonomia-plangintza, -sustapen eta -garapenerako politikak gauzatzeari dagokion zenbatekoa ere.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2021eko urriaren 15ean hartutako erabakiak betez, foru aldundiek 2022rako egindako ekarpenen aurrekontua Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko 11.003.878.898 eurokoa izan zen, eta ekarpen koefizienteak honako hauek izan ziren: % 16,16 Arabarako, % 50,39 Bizkairako eta % 33,45 Gipuzkoarako; beraz, Arabako Lurralde Historikorako aurreikusitako aurrekontu zenbatekoa 1.778.226.830 euro da.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2023ko otsailaren 15eko bileran, foru aldundiek 2021eko ekitaldirako egindako ekarpenen likidazioa onartu zen, 10.829.753.139 eurokoa, eta horietatik 1.874.358.640 euro Arabako Lurralde Historikoari dagozkio.

I. MEMORIA

La Ley 4/2021, de 7 de octubre, que aprueba la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aplicable al periodo 2022-2026, establece, de conformidad con la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que los recursos a distribuir entre las instituciones comunes y las diputaciones forales vendrán determinados por los ingresos de las diputaciones forales derivados de la gestión del Concerto Económico una vez deducido el Cupo al Estado (junto con las compensaciones financieras recogidas en la disposición adicional primera de la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2022-2026, aprobada por Ley 10/2023, de 3 de abril), así como, en su caso, la cantidad correspondiente a la realización por parte del Gobierno Vasco de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico de la CAPV del artículo 22. tercero de la Ley 27/1983.

En cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el 15 de octubre de 2021, el presupuesto de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2022 fue de 11.003.878.898 euros, siendo los coeficientes de aportación: el 16,16 % para Álava; el 50,39 % para Bizkaia y el 33,45 % para Gipuzkoa; por lo que el importe presupuestariamente previsto para el Territorio Histórico de Álava fue de 1.778.226.830 euros.

En reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 15 febrero de 2023 se aprobó la liquidación de las aportaciones de las diputaciones forales para el ejercicio 2022, por importe de 11.598.753.959 euros, de los cuales 1.874.358.640 euros corresponden al Territorio Histórico de Álava.

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 941200 ERAKUNDEEN ARTEKO
KONPROMISOAK. EAE

Era berean, behin betiko bilketa kontuan hartuta, Lege horren 19. artikuluan aurreikusitako Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbatekoa 98.297.102 eurokoa da 2022. urterako. Funts hori Araba eta Gipuzkoa Lurralde Historikoen artean banatuko da eta hurrenez hurren horiei 12.367.769 eta 85.929.333 euroko kopuruak dagozkie.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Programa gauzatzean, egungo esparru juridiko-ekonomikotik eratorritako erakundeen finantza betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak aurreikusi dira.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren jardueri buruzko txostenak egin dira, bai eta aurrekontu finantzaketari eta erakunde arteko finantza fluxuei buruzko azterlanak ere.

EAEko ekarpenak ordaintzeko 6 proposamen egin dira otsailean, apirilean, ekainean, abuztuan, urrian eta azaroan.

Gainera, erakundeen finantza betebeharrak kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko beharrezkoa den dokumentu funtsa eguneratu da.

Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsetik aurrekontuan sartu eta likidatu beharreko zenbatekoa ere zehaztu da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 941200 COMPROMISOS
INSTITUCIONALES. CAPV

Asimismo, teniendo en cuenta la recaudación definitiva, el importe del Fondo General de Ajuste previsto en el artículo 19 de la citada Ley asciende a 98.297.102 euros para el año 2022. Dicho Fondo se distribuirá entre los Territorios Históricos de Álava y Gipuzkoa a los que corresponden 12.367.769 euros y 85.929.333 euros respectivamente.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En la ejecución del programa se han contemplado todas las actuaciones necesarias para cumplir las obligaciones financieras Institucionales derivadas del actual marco jurídico-económico.

Se han elaborado informes en relación con las actuaciones del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y estudios sobre la financiación presupuestaria y flujos financieros interinstitucionales.

Se han efectuado 6 propuestas de pago de las aportaciones a la C.A.P.V., en los meses de febrero, abril, junio, agosto, octubre y noviembre.

Además, se ha actualizado el fondo documental necesario para la gestión y seguimiento de las obligaciones financieras Institucionales.

También se ha determinado la cantidad a presupuestar y liquidar del Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.